LEGELARIARI GALDEZKA

Telefono-operadore bat ordaina eskatzen ari zaio, nahiz eta aspaldi eten zuen kontratu hura

Duela urte batzuk, konpainia batetik bestera aldatu nuen telefono finkoaren zenbakia, inolako arazorik gabe. Baina geroztik, ordea, gutun batzuk iritsi zaizkit, adieraziz ordainagiri ba-tzuk utzi nituela ordaindu gabe eta ordaintzeko eskatuz. Gutunak bidaltzen dizkidan operadoreak esaten dit nire lehengo operadorearekin nuen zorra jaso duela, eta kontratua eteteko pauso guztiak berekin argitu behar ditudala. Zer egin dezaket?

Zenbait telefono-operadorek beste enpresa batzuei uzten edo pasatzen dizkiete euren bezeroen zorrak, eta horiek eskatzen diote gero bezeroari zorrak kita ditzala. Ordainaren galdea egiten diguten horiek ez dira izaten zorrak kobratzeko agentziak, konpainiek hartarako kontratatuak; ordaintzaileak utzi duen egoera bere gain hartzen duten enpresak izaten dira, ordaindu gabe dagoena kobratzeko eskubidea lortu dutenak, beste enpresa batekin hala negoziatu dutelako edo beste enpresa batek haren esku utzi duelako eskubide hori. Kreditua besteri uztea jarduera onartua da, eta Kode Zibilak arautua. Beraz, zilegi da betebehar baten kariaz eskuratu diren eskubide guztiak besteren esku uztea. Batetik besterako aldaketa horren berri jakinarazi behar zaio zordunari, baina ez da behar haren onespenik, hori gabe ere balio du. Horregatik, komeni da bezero bakoitzak dokumentu idatziak eska ditzala, zorraren berri emango dutenak eta kobratzaile aldaketaren erakusgarri izango direnak, eta egiaztatu dezala zer eskatzen dioten, zergatik, zein eperi dagokion eta zenbat denbora igaro den. Zerbitzu jakin bat kontsumitzeagatik eskatzen badute ordaina, jakin beharrekoa da epe bat dutela hori egiteko, eta epe horretatik kanpo ezin dutela egin, nahiz eta auzitegi guztiek ez duten ezartzen epe bera. Batzuek diote bost urteko epea dagoela ordainak eskatzeko (urteka edo aldi txikiagoetan ordaindu ohi diren zerbitzuetan); gehien-gehienen ustez, berriz, hiru urte igarota, ezin da ordainik eskatu, baldin eta merkatari batek merkatari ez den bati saldutako gaia bada. Halako egoeraren bat tokatuz gero, beti komeni da Kontsumitzailea Informatzeko Bulego batera jotzea, eta han lagunduko digute informazioa lortzen eta egoera argitzen.

Higiezinen kudeatzaileak igogailuaren gaia sartzen du batzar guztietako zerrendan, nahiz eta urtero-urtero ezezkoa eman proposamenari

Gure etxejabe elkarteko higiezinen administratzaileak igogailua jarri nahi du. Bost urte daramatza hori proposatuz, eta guk beti ezezkoa eman diogun arren, etxejabeen batzarrerako deialdia egiten duen bakoitzean, hantxe ageri da gaia, igogailua jartzeko aurrekontua onartu, bai edo ez. Gai bat zerrendan jarri aurretik, beharrezkoa da kide kopuru baten oniritzia? Edo, bestela, galde-eskarien atalean landu daiteke? Gainera, jakin nahi nuke ea zilegi den gai hori urtero-urtero ba-tzar batera eramatea, eta ea higiezinen kudeatzaileak biltzen dituen elkargoak bitartekari lanik egin dezakeen kasu honetan.

Jabetza Horizontalaren legeak esaten du edozein jabek eska diezaiokeela batzarrari guztien intereseko gai jakin bat azter dezala eta hari buruzko iritzia eman dezala, eta hori egin ahal izateko, idatzi bat helarazi behar dio lehendakariari, eta han zehaztu zer gai landu nahi duen. Idatzi hori jasota, lehendakaria beharrtua dago hurrengo batzarreko gai zerrendan sartzera. Ez da behar, beraz, kide kopuru jakin baten oniritzia gai bat zerrendan sartzeko. Gauza batzuetarako, ordea, behar izaten da kide kopuru jakin baten babesa; batzar batera deitzeko, adibidez, jabeen % 25ek egin behar dute bat eskariarekin. Administratzaileak hola jokatzen badu, agian, jaberen batek eskatu diolako egiten du, edo lehendakariak eskatu diolako, edo ikusten duelako beharrezkoa dela igogailua jartzea bizilagunen baten adina edo osasuna kontua hartuta. Egoera horrek gatazka sortzen badu jabeen artean, egokiena litzateke hurrengo batzarrean hitz egin eta argitzea, Higiezinen Administratzaileen Elkargora jotzen ibili gabe, ez baitirudi administratzailea utzikeriaz joka-tzen ari denik, ez eta kalterik edo okerrik egiten dienik etxejabeei.

AHOLKULARITZA

Idatzi eta zure arazoa konpontzeko bide egokiena zein izan daitekeen aholkatuko dizugu

> Auzi bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, CONSUMER EROSKIren zerbitzu juridikoak izango dira erantzuna ematearen arduradunak, zure kasuan jarduera egokiena zein izan litekeen esango dizutenak. Orientabidea baino ez da. Kontuan izan, gai juridikoak ez direla errazak, kasu bakoitza baldintzatzen duten hainbat egoera daudela eta horrek sententzian eragina izaten duela.

> Bidali arazoa azaltzen duen gutuna. Eta berarekin batera auziaren inguruko dokumentazioaren fotokopiak. Eskura dituzunak.

> Orrialdeotan argitaratzen duguna izango da auziari emango zaion erantzun bakarra.

EPAIAK

Antzeko auzietan erabakiak eta epaiak desberdinak izan daitezke

> Gure atal honetan auzitegiek emandako epaiak jasotzen ditugu. Edukiari begiratzen diogu eta era guztietako zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeenak aukeratu. Baina ezin da ahaztu, antzeko gertaeren aurrean erabakiak desberdinak izan daitezkeela. Kontuan izan behar dira, besteak beste, eskura dauden frogak, alderdi bakoitzaren egoera eta epaia ematen duen tribunala.

NAZIOARTEKO ADOPZIOA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

Bikote batek erakunde laguntzaile bat kontratatu du haur bat adoptatzeko, baina eten egin du kontratua, zerbitzu txarra eman dutelako

Senar-emazte batzuek adopzio txosten bat jarri zuten abian Errusian erakunde laguntzaile baten bitartez. Hara joan zirenean, osasun egoera negargarrian aurkitu zuten eurei egokitu zitzaien neska. Erakunde laguntzailean lan egiten zutenek behin eta berriz adierazi zieten ongi pentsatzeko haur hura adoptatu aurretik, eta nahi bazuten beste haur bat izendatuko zietela. Azkenik, uko egin zioten haur hura adoptatzeari, baina erakunde laguntzaileak ez zuen lortu beste haur bat izenda ziezaieten. Senar-emazteen iritziz, erakunde laguntzaileak arduragabekeriaz jokatu zuen eta ez zuen bete kontratuak esaten zuena; ondorioz, auzitara jo eta kalte-ordaina eskatu zuen. 14.000 euro ordaindu zizkieten, baina erakundeak gora jo zuen, eta senar-emazteen aurkakoa izan zen epaia. Bikotea oso kexu zen zerbitzu txarra eman zietelako, eta azken erabakia hartzeko orduan, haurra adoptatu edo ez, presio handia egin zielako erakundeak. Madrilgo Probintzia Auzitegiak 2007ko uztailaren 11n eman zuen epaia, senar-emazteen aurkakoa. Haren ustez, kontratuak ez zuen esaten emaitza jakin bat ziurtatuko zietela, hori ez baitago erakunde laguntzailearen esku, haurraren herrialdeko auzitegien oniritziaren menpe baizik. Kontratuan bitartekari lana egiteko betebeharra hartu zuen erakundeak, ez besterik, eta, beraz, erantzukizunik ez zeukala erabaki zuen auzitegiak.

JABETZA HORIZONTALA. HIGIEZINEN ADMINISTRATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

Etxejabe elkarte bateko administratzaileak epez kanpo eskatu du diru laguntza lan batzuk egiteko, eta bere dirutik ordaindu du

Etxejabe elkarte batek batzarra egin eta fatxada konpontzeko lanak hastea erabaki zuen, Udalari baimena galdegitea eta diru laguntza eskatzea. Komunitateerentzat lanean ari zen administratzaileak, ordea, ez zuen garaiz eskatu diru laguntza, eta gabe geratu ziren. Etxejabeek salaketa jarri zuten administratzailearen aurka, eta Madrilgo Auzitegiak zigortu egin zuen (2007ko otsailaren 26koa da epaia): 12.000 euroko kalte-ordaina eman behar izan zien etxejabeei, diru laguntza horixe jaso izango baitzuketen gauzak ongi egin izan balitu. Administratzaileak argudiatu zuen ordainagiriak kobratzera mugatzen zela bere lana, eta administrazio lanak eta diru kontuak egitera. Auzitegiak, ordea, frogatutzat eman zuen hori ez zela horrela, Akta Liburuan argi eta garbi ikusten baitzen kontratua egina zutela Higiezinen Administratzaile bati dagozkion lan guztiak egin zitzan, eta soldata bat ere jasotzen zuela hori egiteagatik.

BIDAIAK. HEGAZKIN KONPAINIEN ERANTZUKIZUNA

Nazioarteko hegaldi bat huts egin dute, herrialde barruko hegaldia ez delako garaiz ibili, baina konpainiak ez ditu hartu nahi bere gain kostu moralak

Bidaiari batzuek auzitara eraman zuten hegazkin konpainia bat, eta 815 euroko kalte-ordaina eskatu zioten hegazkina atzeratu zelako eta horrek kalteak eragin zizkielako. Malaga-Madril-Santiago (Txile) hegaldia zuten hartuta, baina Malagatik Madrilerako hegaldia ez zen garaiz ibili, eta Santiagorako hegazkinak ihes egin zien, eta opor egun batek ere bai. Hegazkin konpainiak aukera eman zien hurrengo egunean irtetekoa zen hegazkina hartzeko, baina itxaroten eman zituzten orduetan, inork ez zien lagundu, eta euren kabuz aurkitu behar izan zuten hotela, eta euren dirutik ordaindu gastu guztiak (ostatua, otorduak eta garraioa). Epaiketan, konpainiak onartu zuen gastu horiei aurre egiteko dirua jartzea, 215 euro, baina ez gainerako kalteengatik eskatzen zituzten 600 euroak (egindako kalte moralengatik eta galdutako opor egunarengatik). Malagako Merkataritza Auzitegiaren epaiak, ordea, argi uzten du hegazkina ez zela atzeratu ezinbestean; konpainiari komeni zitzaizkion moldaketa batzuen erruz baino. Ondorioz, bezeroek kalte moralen ordaina jasotzeko eskubidea zutela onartu zuen (2007ko apirilaren 27koa da epaia), eta kopurua kalkulatzeko, alde batetik, hegazkin txartelaren balioa hartu zuen kontuan, eta, bestetik, galdutako denbora (egun bat). Azkenean, bidaiari bakoitzari, gehienez ere, ehun euroko ordaina emango ziotela erabaki zuen.